



MEDITACION.

Tranquila está la noche,
sereno el firmamento;
duerme en la selva el viento,
duerme en silencio el mar;

Y del triste horizonte
la luna se levanta,
como plegaria santa
desde fúnebre altar.

Remóntate, alma mia,
tambien en manso vuelo,
por ese limpio cielo
de estrellas y zafir;

Y cruza de los astros
la inmensa muchedumbre,
los piélagos de lumbre
de tormentoso hervir.

Espíritus angélicos
te prestarán sus alas,
sus rozagantes galas,
sus cánticos de amor.

Y en dulce arrobamiento,
salvando los espacios,
reposa en los palacios,
del Sumo Criador.

GOGARTEA.

Gaua sosegu dago,
Zerua osgarbi;
Aizea lo basoan,
Itsasoa geldi;
Eta illargia da
Irtetzen tristeki,
Zeñak aldareko otoitz
Santua dirudi.

Alcha, nere anima,
Zu ere or gora,
Izar ta arri fiñezko
Zeru urdiñ ortara;
Eta zeruargiak
Pasa zerrera,
Irago itsas suak
Batetik bestera.

Aingeruak emango
Dizkitzute egalak,
Euren amoriozko
Kantu eta galak.

Eta goza itzatzu
Jainkoaren gelak,
Iragorik lo gisa
Zeru-lurren mugak,

Yo te adoro, bien mio:
yo creo firmemente
que estás aquí presente,
dentro y fuera de mí.

Te he visto en las alturas,
te veo en los abismos,
y en mis latidos mismos
tu palpitar sentí.

Tú dijiste, y fué el mundo,
surgiendo de la nada;
su mirada es tu mirada,
tu voluntad; su ley.

Tus brazos lo sustentan,
tu corazon lo absorbe:
das un paso, y el orbe
se inclina ante su rey.

Aterras cuando enciendes
y apagas luminaires,
que giran á millares
de soles en redor;

Me espantas cuando crujen
y tiemblan las montañas,
si el fuego en sus entrañas
serpea atronador.

Y no ménos me abisman
los abreviados mundos,
donde átomos fecundos
se gozan en vivir;

Y en una sola gota
tienen campos y flores,
y batallas y amores
en rápido bullir.

Gurtzen zaitut, maitea,
Irme det sinisten,
Zaudela nere aurre
Kanpo ta barrenen.

Goian eta leizetan
Zaitut ikusitzen,
Eta zure mugida
Nigan sentitutzen.

Zuk zenduen mundua
Deusezetik sortu;
Bizia ta legea
Zuk emanak ditu.
Biotzeratu eta
Irozotzen dezu:
Pauso bat eman eta
Makurtutzen zaitzu.

Izutzen nazu piztu
Eta itzaltzean,
Millaka argiak jiran
Darabiltzanean;
Ikaratzen mendiak
Dardarikatzean,
Orru egiñaz suak
Bere sabelean.

Ez naute mundu cheak
Guchigo arritzen,
Non fits ugaritsuak
Pozez bizi diren:
Eta tantu batean
Geldi gabe dauden,
Zelai, lore, amore
Gudak irakiten.

Si en lo mínimo asombras,
y en lo máximo espantas,
en medio á glorías tantas,
y tanta majestad,

Tu vida es un latido
de amor, y amor tu esencia,
amor tu providencia,
tu gozo caridad.

Tú calmas el anhélito
de toda criatura;
y solo es hermosura
la lumbre de tu amor,

Que el trono del emperio,
los astros rutilantes,
los átomos errantes
circunda en esplendor.

Y rotas en torrentes
de amor las cataratas,
sobre el hombre desatas
el pecho paternal.

Diríase que agotas
el corazón deshecho,
por ablandar su pecho
de seco pedernal.

En el Edén le diste
morada transitoria,
y tu manto de gloria
por abrigo y dosel.

Con tus ojos parece
que sus ojos codicias,
y han sido tus delicias
morar siempre con él.

Omen ainbestekoen
Erdian, guzia,
Bazera aundi chikian
Añ miragarria;
Amorezko tupots bat
Da zure bizia,
Karidade uts utsa
Zure poz aundia.

Zuk dituzu gozaten
Asnas nekatsuak;
Eta amorezko zure
Su añ edertsuak,
Argieraz daukazki
Choll ingurutuak,
Fits kolokak, izarrak
Ta zeru altuak.

Ta amorez betetako
Ur jaiotza autsirik,
Gizonagan aitaren
Bularra zabalik;
Ustutzen dirudizu
Biotza askaturik,
Bere pechu gogorra
Biguntzeagatik.

Eden zñion eman
Eche iragortzat,
Omenezko mantua
Dosel ta berotzat.

Begiak nai ziñuzke
Arenak zuretzat,
Arekin bizitzea
Daukazu zuk poztzat,

«¡Señor! ¡Señor!» te dicen
la aurora en dulce llanto,
las aves con su canto,
las fieras al bramarse,

Los volcanes que asordan,
los vientos que batallan,
los rayos cuando estallan,
y, alzando el pecho, el mar.

Los que tu trono cercan,
ángeles y querubenes,
en refulgentes nubes
de nácar y carmín,

Te aclaman: «¡Santo! ¡Santo!»
pulsando el arpa de oro;
«¡Santo!» no más, el coro
en que arde el serafín.

Y sólo entre los séres,
hechura de tu mano,
predilecto el humano,
«¡Padre!» te llama á Ti.

Y ese nombre inefable
Tú en mis lábios lo pones:
en las dulces lecciones
de Jesús lo aprendí.

Que no en tronante carro,
ni en lluvia de centellas,
ni triturando estrellas
buscas mi corazón;

Sino en fragantes auras,
y arbol y rocío;
llamándome: «¡Hijo mio!»
gozando en el perdón.

«¡Jauna!» deitzen dizute
Lantuz albargiak,
Orruaka abereak,
Kantuz egaztiak,
Su-zulo gortzalleak
Aize gudariak,
Eta, bularra alcharik
Itsasgenasiak.

Karmin ta nakarrezko
Lañoz apainduak,
Zure jargoiazen zai
Dauden aingeruak,
Dizute esaten, joaz
Lira urrezkuak;
«¡Santua! ¡Santua!» ta
Orobat koruak.

Eta sortu ziñuzen
Gauzetan, gizona
Da, bakarrikan «Aita»
Deitutzen dizuna.

Nere aoan paratzen
Dezun izen ona:
Jesusen leziotan
Ikasi nuena.

Etzabiltz nere billa
Turmoi gurdietan,
Ez izar chetu eta
Ochingar euritan;
Baizik intz, osgorri ta
Aiše lurrindutan:
«¡Semea!» deituaz ta
Barkatuz pozikan.

Tanto amor paga el hombre
con ofensa infinita.
Luzbel lo precipita
por abismos sin luz.

Y del cielo descende
por redimirle, el Verbo:
toma forma de siervo,
muere en muerte de cruz.

No hay más alla.—¿Qué digo?
su amor omnipotente
confundirá mi mente
con prodigio mayor.

Dios sube al cielo, y queda
vivo aquí, en sacramento,
y entrega por sustento
su carne al pecador.

—«Venid á mí», nos dice,
los que gemís en llanto:
dolores y quebranto
tambien yo conocí.

«Puerto del que zozobra,
bálsamo en toda herida,
resurreccion y vida
sólo hallaréis en mí.

»No sucumbais al peso
de tanta y tanta ofensa:
misericordia inmensa
guardo al pobre mortal.

»Venid, que en vuestra casa
no hay mayor regocijo,
que cuando llama el hijo
pródigo en el umbral.

Gaizki ditu on oek
Gizonak pagatzen,
Inpernu beltzera du
Luzbelek botatzen.

Eta libratzeko da
Jesus lurreratzen;
Egiten da gizon, ta
Gurutzean iltzen.

Bukatu da.—¿Zér diot?
Burua naastuta
Utziko nau mirari
Aundigoz beteta.

Zerura doa emen
Bizirik gerata;
Pekatariri bere
Gorputza emanta.

—«Nigana atozte», dio,
Lantuz zaudeztenak;
Nik ere izan nituan
Erruki ta miñak.

«Nigan daukazkitzute
Ontzien bai onak,
Piztea, bizitza ta
Balsamu belarrak.

»Irain aiñ aundipean
Iñor ill ez bedi:
Atozte, urrikia
Diot gizonari.

»Zure echean etzalo
Zabaltzen iñori
Aterik aiñ pozik, non
Seme galgarriri.

»Soy Pastor que abandona
por la oveja perdida
toda la grey, y olvida
por ella mil y mil;

»Y hasta encontrarla, cruza
breñas, cumbres y faldas,
y en sus mismas espaldas
la conduce al redil.

»No doy mi cuerpo al ángel,
ni en mi sangre lo anego:
sólo el honor entrego
de mi alma al hombre infiel.

»Y el que mi cuerpo y sangre
dignamente recibe,
en mí reposa y vive,
en mí mora, y yo en él.»

.
.

Tranquila está la noche,
sereno el firmamento:
duerme en la selva el viento,
duerme en silencio el mar.

Desata, Padre mio,
mis terrenales lazos,
que yo sólo en tus brazos
aspiro á reposar.

Francisco Navarro Villoslada.

»Artaldea laja ta
Baten billa pozik
Dabillen artzaia naiz,
Besteak utzirik;
»Eta zoko, arzulo,
Mendiak jirarik,
Eramaten dedana
Lepoan arturik.

»Nere gorputz odolak
Aingeruentzako
Ez dira: baizik gizon
Fedegabeentzako.

»Eta baldin artutzen
Baditu diñaro,
Ni nago artan, eta
Ura nigan dago.»

.
.

Gaua sosegu dago,
Zerua osgarbi,
Aizea lo basoan,
Itsasoa geldí.

Askatu, Aita aundia,
Lur-lazoak neri,
Bada nai nuke zure
Besoetan bizi.

Otaegi-ko Klaudio-k
euskaratua.